

Kutxabankek etorkizuneko bankarako profesionalak bilatzeko hautaketa prozesua abian jarri du

- Talentu komertziala eta digitala daukaten lagunak ditu helburu, alorrak bizi duen eraldaketari erantzun ahal izateko
- 2017az geroztik 300 behargin hartu ditu kontratu mugagabeekin

2021ko maiatzaren 6an. Kutxabankek inguruko profil onenak bereganatzeko helburuari eusten dio, eta **hautaketa prozesu berrian 45 lagun** kontratatuko ditu, talentu komertzialean eta digitalean espezializatutako profilei erantzuteko.

Azken 4 urteetan **300** gazte baino gehiago hartu ditu Erakundeak kontratu mugagabeekin, guztiak Matematikan, Ingeniaritzan edota ohikoagoak diren Ekonomia, edo Enpresa-zientzietan eta Zuzenbidean tituludunak. Helburua pertsonal kualifikatuko postuak betetzea da, eta alorrak eskatzen dituen eraldaketa-teknologikoei eta espezializazio-eskakizun berriei erantzutea.

Kontratu berriek Kutxabanken **bulego sarean, zerbitzu zentraletan** eta **espezializatutako alorretan** lan egingo dute.

Profesional berriei hazkunde profesionalerako eta pertsonalerako aukerak dituen egitasmo batean parte-hartzeko aukera emango die Kutxabankek, lidertza duen enpresa batean. **Etorkizuneko bankan** aritzeko profesionalen bila ari da Bankua, bezeroekin, teknologiarekin eta inguruarekin konpromisoa dutenak, eta erantzun gardenak emateko gai direnak alor ekonomikoan, sozialean eta ingurugiroan Erakundearen eragin positiboa maximizatzeko.

Kutxabank Taldearen plantilla 5.500 lagun baino gehiagok osatzen dute, kontutan izanik Bankuaren zerbitzu espezializatuak. Langileen batez besteko adina 43 urtekoa da eta % 60 emakumeak dira.